

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
73 ZENBAKIA
EPAILLA
1984



Markel Laga



JOLAS-ZELAIA
(BILBO'N)

"AFARIA"

Ona emen euskal arazoen konponbide bat: AFARIA, euskal afaria.

Benetan inork amestu ete dau inoiz afari bako Euskalerririk

...Oker ez ba'nago, Joxe Azurmendi lako euskal idazle serio bati irakurria dot, erdi benetan erdi txantxetan, Euskalerriko gauzarik garrantzitsuenak afalondoan erabazi izan dirala.

Eta izan be, afarlordu eta afalorduko batzarrak, asmoak, egitamuak ametsak eta erabagiak ez dabe euskaldunen artean akaberarik izan.

Aititen ipuin zaarretatik asi, kultur-gizonen ez-tabaidetatik igaro, eta isil-aldiko ainbat batzarretaraino, afari edo afari modukoa dogu beti euskal kon-dairan lekukorik isil eta iraunkorrena.

Alderdiak, mugimenduak, taldeak, alkarteak, ikastolak... zer ez ete da gero aitatu, indartu eta bul-tzatu ainbat eta ainbat afaritan?

Oraingo lan-bazkariak asmatu baiño askoz ere lenago ibillaldian egozan euskal afariak, naiz eta zen-baitek beti euskal-antxiñatasuna gutiespenez aita tu...

Baiña, euskal afaria larrialdian dago, beste ainbat gauza lez.

Eta samingarria da.

Euskalduna ez da berez batere komunikagarri, eta orrez gaiñera alkar-komunikatzeko aukerarik erritarrena baztertzen ba'dogu, mutu eta gor erri bat biurtzeko arrisku aunditan geratzen gara.

BILBO'tar MARTIN (†)

IDAZKOLAKOEN OARRA: Bilbao'tar Martin, Munguia'ko semea, Anai Lamenetarren arteko irakaslea izan dogu. ZER'erako idaz-lan batzuk itzi dauskuz idatzita eta "Aitarek Etxera" joan jaku (G. B.) ZER onen urrengo zenbagi baten bere barri zeatzaogak emongo doguz.

PALMI MERINO'ren ESKARIA

Agur lagunok:

Urteroko ordainketa bialduz gañera beste gauza bat esan gura dautzuet ZER aldizkariari buruz.

Ni orko ikasle bat izan naz eta ondiño gauza asko ez dakit baña azko maite dot euskerea eta orregatik nire eritzia ezagutu bear dozuela uste dot.

Zer aldizkaria euskera asko dakientzako bakarrik dala esan bear dautzuet. Ortik gatozan euskaldun barriak Bizkaiko euskera errezagoa irakurri bear dogu, ez aldizkari osoan baña zati batzuetan edo orrialde baten bakarrik bai.

Gauza errez oneik, erri-gertaera labur batzuk, gure kulturataz galdekuntzaren bat, euskal ikaskaien

azalpen batzuk (-N- atzizkia noiz ipini bear dan, kaso guztiak) ... LA eta ...NIK desbardintasunak, ...TEKO eta ...TEKORIK, adibideakaz eta abar... Orrez gañera be, aldizkaria, apaindura gitxiago eta barruko geiago eukiko leikean. Zer deritzazue?

Puxanaren idazkiak, asko gustatu jataz eta geiago eta adibideakaz idatzi bear dauala uste dot.

Parkatu egidazue nire ausardia-gaitik baña ZER aldizkaria erosten daben batzuk ezagutzen dodaz irakurri ezin dabenak.

Orregaitik eta Bizkaiko euskerea irakurtzea asko bear dogulako diñotzuet eta besterik barik nire laztan eta agur beroenak zuentzat.

PALMI MERINO

IDAZKOLAKOEN OARRA: Ba-dira ZER'en orrialde oso ulerterrez batzuk, atarikoak esaterako. Dana dala, aleginduko gara Palmi adiskide ta lankidearen eskaria beteten eta euskaldun barrientzat orrialde berezi bat ateraten urrengo zenbakian asita. Eskerrik asko, Palmi, eta zeuk be lagundu.

AGUR JAUNAK

ZABALKUNDEA

Gure aldizkariaren atarirako idazkitxu au idazten dogun artean, auteskunderako zabalkudearen zara-teak inguratzen gaitu. Gure inguruan erriketarako alderdiak autarki-billa dabiltz.

Baiña irakurleak 73n. ZER au eskuratzen dauanerako Euskalerrian zati onek bere agintari barriak izango dauz. Oraintxe da ba AGUR JAUNAK abesteko ordu egokia.

POZTASUNA

Artegatasun batzuk izan arren, une pozgarria da erriak aukeratu dauzan agintariak agurtzeko unea.

Bear-bear doguz, izan be, agintariak eta bear-izan ori beteta ikustearena da gure poza eta poz au aundiago biurtzen dau agintari orreik benetako euskaldunak eta geure-geureak izateak.

Agintariak dira, era batera, Lege-Biltzarra edo Bazkuna osotzen daberen aldunak, agintaria baita Lendakaria eta beragaz batera legeak bete-azoteko lana osotuko daberen laguntzaille berak aukeratuak.

ERRIAREN IZENEAN

Antxiña agintariak Jaungoikoagandik artzen ebela aginpidea uste izaten zan, baiña batez be Rousseau'k auteskunde orokorra asmau edo erriratu ebanean, agintariak erriagandik dabela aginpidea ikusten da.

Dana dala, azken baten, gizonaren nortasunaren iturburua bere Egillea dala sinisten daberenentzat, or danean dabil zelan edo alan Jaunkoikoaren eskua.

ANTXIÑA ETA GAUR

Erriak egintariak aukeratzea antxiñako oitura itzalgarrria izan da Euskalerrian: Udalerri bakoitxak bere ordezkaria aukeratzen eban ordezkari oneik arizpean batuta, gaurko Lege-Bazkun edo Parlamentuaren antzera, erri osoarentzat legeak egiten ebezan eta lege orreik beteteko edo bete-azoteko ordezkari guztien artean Aldundia aukeratzen eban.

Eurak ziran Bizkaia'n "Jauna" aukeratzen ebanak be. Zori txarrez jauntza ori, etorpide lez, inguruko Erregeen eskuatara jausi zan eta Jaunak izan ziran gure askatasuna galtzeko bide.

Asieran gudak zuzentzeko izan zan Jauna gure askatasunaren ondamendi biurtu jakun, albo-errien jauntxukeriaz.

LENDAKARIA

Joanak joan, Bizkaia'k, Guipuzkoa'k eta Araba'k parlamentu edo Lege-Bazkuna dauke eta Euskalerrriak Irugarren Lendakaria, Garaikoetxea'tar Karlos'ek jarraitzekotan. Agirre, Leizaola ta Garaikoetxea euskalerrriaren kondairan aitzu-eziñeko irukotea doguz. (Or tartean Rubial gogoratu bear, antzeko arduradun izan zana).

ZUEK ETA GU

Jarraitu dagigun aurrera, gure erria bere izkuntzaz eta izaereaz bizi daiten: AGUR JAUNAK... Danak Jainkoak iñak gera zuek eta bai gu bere...

DAKARTSO/DAKARKO, DAROATSO/DAROAKO

Auxe be itzela dok, orraitño! Orain arte *dakarst*, *dakartsu*, *dakartso*, *dakarsku*, *dakartsue*, *dakartse* eta *daroast*, *daroatsu*, *daroatso*, *daroasku*, *daroatsue*, *daroatse* entzun izan joagu beti. Bai aozko berbakuntzan, baita adatzizkoan be. Azkenengo berreun urteotan-edo bai beintzat.

Gaurgero, barriz, *dakart*, *dakartzu*, *dakarko*, *dakargu*, *dakartzue*, *dakarke* eta *daroat*, *daroatzu*, *daroako*, *daroagu*, *daroatzue*, *daroake* jokoak erabili bear ei dozak.

Bigarren erako jokook Euskaltzaindiak jatorratzat jo ei jozak, eta, orregaitik, Eusko Jaurlaritzak BIZKAIERAREN IDATZIZKO ARAUAK-DEKLINABIDEA ETA ADITZA izeneko liburuan bizkaieraren erabilpiderako joko orreexek proposatu.

—Eta arrazoia?

—Zera, Mogel-ek eta euren aldian onangoxe adizkerak erabili ebezela.

—Ori baiño ez?

Nik dakidala, ez.

Literatura tradiziñoaren indarra, mutil! Tradiziño santua!!!

Onango adizkerak Mogel-ek eta erabili joazan. Mogel, baiña, 1804-an il zoan. Eta arrezkero uriolak askotan izan dozak Euskalerrian. Urteak eta urteak joan dozak. Eta arrezkeroko guztian erriak eta idazleak ao batez leenengo erako adizkiak erabili joez. Eta gaur be bizkaiera egiten dan lekuetan onangoxeak entzuten dozak.

Bigarren erako adizkiok, ostera, zearo galdurik dozak. Alan da guzti be, orreek ei dozak jatorrak eta taiuzkoak. Leenengoak, barriz, erdi sasikoak edo.

Eusko Jaurlaritzak agertu barri dauan liburu orretan auxe be irakurri joat (8-garren orr.): «Batzorde honek ondo daki bizkaierazko Zer-Nori-Nork adizkiretako NORI-morfemak ondorengook dirala: niri T, KO = hari, GU = guri, ZU = zuri, ZUE = zuci eta KE,- eurai».

Liburu ori gertau daben jakitunok orixe idatzi joez, baiña, ara: aditz osoari (trinkoari eta laguntzailledunari) begira bagakiozak, ori ez dok egia.

Aditz sintetikoari buruz izango dok. Baiña perifrastikoari buruz, ez.

Ikusi:

DeuST, *deuTSU*, *deuTSO*, *deuSKU*, *deuTSUE*, *deuTSE*.

NORI-morfemak, beraz beste batzuk dozak. Eta au bai orain, baita Mogel-en aldian be.

Ori dala-ta, aitaturiko liburuan NORI-morfemei buruz jaun jakintsuok idatzi dabena aditz trinkoa edo sintetikoa gogoan ebela idatziko joen, nik uste, ezertariko bereizkuntzarik etxoek egin baiña.

Urtetan eta bizi-bizirik izan diran eta gaur be badiaran adizkeraz baztatu edo egin, eta aspaldidanik illik diranak barriztau eta biztu, ori ete dok, ba, il-zorian daukagun bizkaiera aurrera atarateko biderik egokiena? Olantxe izango dok, olantxe izango dok, jakitunek diñoskuenean...

EKINTZAK

(1983)

Agur Lagun maiteok:

Beste urteetan lez, bioakizue Batzorde onen eskerrik beroena, batzar onetara etorri zarielako.

Beste gorabeerak entzunda gero, niri dagokit urte oro egin dodan antzera, igazko ekintzen azalpena emotea.

IKASTAROA.—Beste urteetan oartu dogun lez, badirudi ikasleen kopurua gitxitzen doala. Ez dakit zeatz gitxitze orren zioa, baiña baleike, euskera irakasten daben erakundeak ugaritu egin dirala alde batetik, eta jendearen lenengo adorea joanda, bestetik, gitxitzearen erantzuleak izan daitezela. Dana-dala, aurtengo ikastarorako 300 ikaslek izena emon dabe.

Igaz be, oi dogunez, Uda-ikastaro laburra atondu genduan, Ibarra'tar Bernardo'ren ardurapean. Iru maillatakoa izan da, eta 42 ikaslek izena emon eben. Ikastaroko ordaiña 2.500 laurlekokoa izan da ikasle bakotxarentzat.

Alkarrizketa-maillak, beti lez, eta arrakasta onaz jarraitzen dabe.

IPUIN SARIKETEIA.—Igaz be, aspaldiko oiturari jarraituz, gure erakundeak Ipuin-Sariketeia atondu eban, eta ona emen sari orren gora-beerak.

1'go saria.—30.000 laurlekokoa, Aita Iñaki Giokoe'txea josulagunak irabazi eban, «Sabintxu ta Ama Euzkadi» ipuiñaz.

2'gn saria.—25.000 laurlekokoa, Bergaretxe Jaunak lortu eban, «Zerueta-kko Ovni» ipuiñaz.

3'gn saria.—20.000 laurlekokoa, Aurre-Aprai'z'dar Balendin'ek jadetzi eban «Norbera jaten daua...» ipuiñaz.

Aurten be, beste urteetan lez, Ipuin-sariketa batera dei egingo da.

«ZER» ALDIZKARIA.—Beti lez, bizkaieraz argitaratzen dan aldizkari bakar eta errikoia geuri dagokigu zaintzea ta zabaltzea, Olazar'tar Matiñ'en ardurapean. Aldizkari au gure erakundearen abotsa da, eta gai asko erabilliz gaiñera, gure bizkaieraren txingarrak bizierazoteko bear dogun auspoa dogu.

Aurten be, udagoiengan illabete batzutan agertu barik izan dogu, argitaratzen dan irarkolako lan-iztegitik. «Editorial Vizcaina»ren arazo ori konponduta gero, barriro agertu da, guztien pozerako.

EGUTEGIA.—Urtero lez, eta geuk atonduta, aurtengo egutegia Bizkai'ko Aurrezki Kutxak ordainduta, argitaratu izan da. 45.000 ale banandu dira, eta badakigu etxe askotan irakurten dala, gure baserritar askorentzat euskerazko janari bakar eta ederratsia izanik. Izan be, ekintza onek urtero poztasunaz beteten gaitu, gure basarrietan egunoro zcozer euskeraz irakurten dala badakigu-ta.

LAGUNTZAK.—Gure ekintzak labur geratuko litzakez, erakunde batzuen laguntza ez ba'genduke, eta bidezko deritxagu on-egillean izena aitatzea.

Agirian jarri dagiguzan Bizkai'ko Aldundiaren eta Bizkai'ko Aurrezki Kutxaren laguntzak. Erakunde bi onetik gure eskerrona ondo merezi dabe: obeto esateko euskerearena, eurakandik artutako laguntzak elburu orretarako dira-ta. Olako laguntzaille emonkorak doguzan artean, aurrera joko dogu adurez beterik.

EKINTZA BARRIAK.—Oiko ekintzakaz gaiñera, aurten euskal aste bat atontzea asmau dogu. Bost eguneko jardunaldia izango da, eta egitama guztiz atontuta

EUSKERAZALEAK

izan ez arren, aurreratu dagike-tzuegu, Jorrailla'ren leenengo as-tean izango dala. Bost itzaldi edo txosten emongo dira, astelenean asita, barikurarte, eta gaiak gure ustez oso jakingarriak izango dira. Dana-dala, bere garaian asmo orren zeaztasunak artuko dozuez.

KILI-KILI.—1.983'ko urtea era-kunde onen 17'gn urtea izan da. 1.982'ko urtean ez zan aldizkari-rik argitaratu, baiña igaz bai; Kili-kili eguna ordea, ez zan ospatu. Ikastaroa beste urteetan lez izan da. Lortutako gauza pozgarrien artean, esan bear dautsuegu, Arrate Irratian Kili-irratia sortu izan dala, irratialdiak bizkaieraz

emon dauzala, Euskerazaleak Al-kartekoek atonduta.

Kuadernoakaz gaiñera, Kili-kili'koen amesa, irakurgai errazak argitaratzea izan da, baiña diru ezagaitik asmo ori ez da egi biurtu. Orretarako bearrezkoa dan laguntza ez da garaiz eldu, eta urteburuan laguntza ori eldu zanean berandu zan. Igaz ba, ez da beste argitaralpenik egin, Lan ta Lan kuadernoena baiño, eta oneik bir-argitalpenak izan dira.

Kili-kili'k aurrera joan daiten, diruz gaiñera beste auxe bear dau: zelako laguntzak, noz eta zenbatekoak izango diran, aurretik jakitea. Bestelan ezin izango dau gauza andirik egin.

Bizkai'ko euskareari buruz, Kili-kili'k aurtan be gogor jokatu dau Eusko Jaurlaritzaren aurrean. Bizkai'ko eskola-ume euskaldunen alde egin dau. Bizkai'ko umeak eskolan bizkaieraz egin bear dabela, ondo sendotu arte, gaurregun Jaurlaritzak ez dau zalantzan ipinten, baiña ekintzen aldetik oraindiño ori es da lortu. Olan jarraitzekotan, umeen euskereak ez dau luzaro iraungo.

Gaur euskeraren ardura dabenek, egindako kaltea zuzentzen ez ba'dabe, eta arin, euskerearen etorkizuna illun ikusten dogu.

Besterik ez.

1.984'ko Urtarrilla'ren 26'gna.

"EUSKERAZALEAK" IPUIN-SARIKETEAK

EUSKERAZALEAK Taldeak, igaz lez, ipuin-sariketea eraten dau. Sariketa onetara sartzeko, oneik izango dira baldintzak:

- Euskera biziz idatziak izan bear ko dabe. Erriak darabilen euskalkietariko bat erabilliaz idatziak.
- Ipuinen itzulpenak ez dira onartzen.
- Luzerea, iru orri-alde, bitarte bi lerroartean dituela.
- Epea: Jorraillaren azkenerako gure etxean (colón de Lerreategui, 14, 2.^a eskoia) izan bear ko dabe.
- Sariak: Iru sari izango dira: 1.^a 40.000 pezeta; 2.^a 30.000 pezeta eta 3.^a 20.000 pezeta.
- Ipuin sarituen jabe "EUSKERAZALEAK" izango da eta ZER gure aldizkarian argitaratuko dira. Sari barik geratzen diranak, idazleen esku geratuko dira eta eurak billa etorri bear ko dabe.
- Oitura dan lez, ipuiña izen-ordeaz bialdu eta izen-orde ori gaiñean daroan azal baten barruan sartu izen-ordea ta izena batera daroan txartela.
- Maikoen erabagia, uztailleko ZER'en agertuko da.

"ALDARE-LIBURUA"

«Aldare-liburua» zer izan daitekean ez dakite-
nentzat, auxe dala esan bear: Meza ematekoan apai-
zak aldarean bear duan liburua, eguneroko otoitzak,
igande ta jaietakoak, santuen egunetakoak, eskariak
edo erri-otoitzak, Sagarak eta Sagara-aurreak e. a.
dituana.

Aspaldi ontan zenbait liburu ta liburuxka erabili
bear izan ditugu aldarean, zatika ta aldi ez-berdiñe-
tan argitaratuak ain zuzen. Aldaretik esateko diran
guztiak liburu bat berean bildurik egotea da egokie-
na. Aspaldiko ametsa ez-ezik, amar-bat urte badira
orri-pilla aundia euskeraturik eta garbiro idatzairik
gelditu zala.

Bereala argitaratuko duten otsak zabaldu dira.
Liburu aundia izango da gutxi gora-beera, IRA-
KURGAIK liburua bezain aundia; ez da, beraz,
bizpairu urte barru ostera berriturik naiz obeturik
atera dezaketen oietakoa: luzarorako egiñik gelditu-
ko da, baizik.

Bidezkoa da, noski, gauzak orrela diranez, aal
bezain txukun eta euskera egokiaz ateratzen zin-zi-
ñez saiatzea. Akatsak kentzeko ta zuzenketak egite-
ko ere, orain litzake garaia: argitaratu aurretik. Eta
orain egun eta aste batzuk atzeratzea obe dala de-
rizkiot, luzarorako akatsez kaxkarturik ateratzea
baiño.

Nai bezain goiz egin ez ba'ditut ere, egiñik eta
bidalirik ditut lau orrialde, nezetzat uts edo akats di-
ranak zuzentzea eskatuz. Asi Gotzai jauna-gandik
eta arduradunengana, bidalirik dizkiet nere oarrak
eta egiñik dizkiet eskaerak. Aldi berean gure erriak
ere jakin bear dituala, iruditzen zait. Ez dago ezer
izkutuka ibiltzekorik. Arazoak guztien aurrean gar-
bitzea da, beraz egokiena.

—o—

«ORDUEN LITURGIA» or daukagu 1977'gn
urtea ezkerokoan eta liburu ortako otoitz eta zati
asko dira orain ALDARE-LIBURUA edo dalakoan

sartuko dituztenak. Lenengoan oker daudenak, bi-
garrenean orain era berean agertzea, tamalgarria li-
tzake: orain da zuzentzeko garaia. Eta ortara datoz
nere oarrak, «Orduen Liturgia» liburuan neretzat
egoki ez daudenak beintzat, orain berri-an zuzendu-
rik eman dezaizkiguten. Eta auek dira akatsik nagu-
sienak:

1.—EDO itza okerreko eran erabillita dago zen-
bait unetan, adibidez 639'gn orrialdean:
«...gorrotoak, guduak EDO indarkeriak il di-
tunak...»

Or berdintasunik ez dagoanez, oker dago
EDO ori ta orren orde, NAIZ da ipiñi bea-
rrekoa, onela: «gorrotoak, guduak NAIZ in-
darkeriak il...»

Orra, bada, zeazki zaindu bearreko uts
bat, zuzentzen erraza.

2.—BAIZIK itza, askotan eta askotan oker ipiñi-
ta dago: bete-betean gaztelerazko joskera
berean. Beste askoren artetik, ona emen adi-
bide bat: «...ez gitezela nagi izan sinisteko,
BAIZIK sinis dezagula... 377'gn.

Gazteleratik zerbait euskaratzekoan, gero-ta
joera aundiagoa ageri da BAIZIK ori, gaztelerazko
SINO bezala, era berdiñean erabiltzeko. Baiña eus-
keraz ari geranean, galde-gaiaren atzean joan bear
du BAIZIK itz orrek, onela:

...ez gaitzela nagi izan sinisteko, sinis dezagula
baizik...

Beste adibide bat, 734'gn orrialdean dago: «...ez
utzi gu gaiztakerian erortzen, baizik egizu...»

Onela bear du: ez utzi gu gaiztakerian erortzen,
egizu BAIZIK...

Ala ta guztiz ere, zenbait esaldi luzetan, errazta-
sunerako ta argitasunerako, bada erdi-bide bat, eta
auxe da: BAIZIK Ori aurrean ipintzea, baiña era
ontan: BAIZIK-ETA egiñik.

Edibidez: «Ez gaitzela nagi izan sinisteko,
BAIZIK-ETA sinis dezagula erioaren garaille zera-
la».

(JARRITZEKO)
GAZTAÑAGA'tar JESUS

ITZALTZE- ARRISKUAN

Orain aste batzuk, argitaldu zan «Euzkadi» aldizkarian, idazlan irakurgarri bat geuk euzkaratu dogun idazpuru onegaz, «El euskara en peligro de extinción», jakina, gazteleraz baiña lenago esan dogunez irakurgarria.

Benetan oldoztuazoten dauskuna da, beste zeaztasun askoren artean dirauskun au: «Jokabidea aldatuten ez ba'da, beste giz-aldi bitan aldendu leitekela».

Egiz, guk ez dogu uste gure izkuntza orrenbesteko arriskuan aurkintzen danik, aldi onetan daukagun baiño ezkatasun gitxiago ez dogun artean, euzkera irakatsi eta era askotara bultzatzeko eskubiea daukagulako.

Orixe bai, euzkerak azken-aldi onetan auki dauzan laguntzak, Euzko Jaurlaritza eta beste era batzuetara, ez dira bear-litzakezan lez gozatuak izan.

Gure ustez, erriak ezagutzten ez dauan euzkera nastu ta korapillua indarrez sartuazoten alegin diranez, bizkaiera kementsua, napparrera goxoa eta gipuzkoera osotua alde batera, batez bere bizkaiera baztertuta, itzita alegindu diralako erdel kutzezko «el batua» zaila erakutsiten, naita gero gitxi batzuk baiño bestek ez daben itz egingo.

Ori bai, lenago ederki euzkeraz irakurriten eben euzkaldun askok irakurteari laga egin dautsoe, geien baten ulergaitx egiten yakelako atxez beteko euzkera-mordollo ori.

Gure izkuntza euzkerak, ez dau gaur-egun lako laguntzarik, izan. Gure Euzko Jaurlaritzak txinditza apaiñak eralgiten dauz euzko Ikastola, «Gau eskola» ta euzko jakintza arloak bultzatzen, Euskaltzaindi, «Real Academia de Lengua Vasca»'ri iñon diran erraztasunak emoten. Zetarako?

Aitatu doguzanak eta beste laguntza asko orreik bear-diran lez gozatuak izan ba-litzaz azkenengo lau edo bost urte oneitan, askotaz zustraituago, oñarrituago aurkituko zan euzkera, baiña, ez da orretara izan tamalez.

Azkeneko urteotan len baiño zerbait euskera geiago entzuten ba'dabe gure errietan, guda aurretik baiño mordoilkeri geiagoko euzkera entzuten da, orretara idatziten dalako ikastoletan, izparringietan, esaten dalako irratietan eta, tamalena, Euzko Urrutikuskiña edo txarto esanda, Euskal «Telebista»'n.

Irurogei urte dira lenengoz euzkeraz irakurriten asi nintzala, asti-

ro ta txarto, ikastolan, «eskolan», ez-nekian erdera, gaztelera baiño besterik irakurten ez-eustelako irakatsi, baiña, aundiago ta zale-tuago egiñaz joan nintzan eta, laster aditu nintzan zeintzuk ziran, izparringi ta beste idazki guztiak, euskerarik garbiena, txukunena idatziten eben. Beraz, gure izkuntza erdelkeri guztiak garbitu ta izkuntza berezi bardingabe bat egiteko bidean jarteraño. Lan neketu oretan, jakiña! Sabin-dar aber-tzaleak, euzkerari emon eutsen bultzakada bardingabea iñork ezeztu ezinn legikena da, atxezale Sabin'en etsaien batzuk izan ezik.

Gaur-egun ostera, nasai-nasai ikusiten doguz jeltzale bat baiño gaiago, gure Aberria'ren izena, Sabin'ek sortu eban izena Euzkadi s'az idatzita ikusi naiz atxez beteko euzkera mordolloa ikusita bere. Zori txarra benetan gurea.

Gai onetzaz asko idatzi leikigu baiña, ezin geinke dana gaur esan, leku asko geiago ez dogulako. Ori bai, Euskal Urrutikuskiña «TBE»'ri (Gipuzko TBE?) erabilli daijala euzkera mordoilkeri gitxiagokoa eta euzkaldun guztiontzat ulerko-rrago eta EUZKERA garbiagoa «euskerak itzaltzeko arriskuan» aurrera irauñ ez dagian.

ALTUNA'tar JOSU

SANTU

EUSKALDUNAK

Epailak 1

LEON DEUNA, GOTZAIN ETA MARTIRIA

Baiona'tar eta bere eliz-barrutiko santu zaindaria da.

Frantzia'ko Normandia lurraldean jaio zan 9'garren gizaldiaren asieran.

Paris'era joan zan gazterik ikasketak egitera, eta amaitu ebazanean Erroma'n gotzain sagaratua izan zan.

Aita Santuak Baiona'ko gotzain izentatu eban, eta Pirineo menditako bi aldetan —Baskonia'ko euskal lurraldetan— Kristoren Ebanjelioa zabaltzen aalegin andiak egin ebazan, baita euskaldun asko bateatu be.

Normandar itsas-gizonak Baiona'ko uria arrapatu ebenean Leon gotzaina, burua moztuta, il egin eben.

Bere gorpua Baiona'ko katedralean zaintzen da.

Epailak 3

EMETERIO ETA ZELEDONIO MARTIRI DEUNAK

Irugarren gizaldian, Kalagorri'n, Diokleziano, Erroma'ko enperadorearen goi-maillako gudariak ziran.

Enperadorea Jaungoikotzat artu, eta gurtu gura ez ebelako, bere bizitzaz ordaindu eben Jaungoiko Bakarrean sinistea.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa'ko zati andi bat Kalagorri'ko eleiz-barrutiko ziranean, martiri bi oneik izan ziran gure lurraldeetako zaindari.

Emendik dator Euskalerrian martiri bi onein ospez eragıtako ainbat baseliza, eta euren izena euskal liturjian sartzea.

Epailak 8

IRATXE'KO BEREMUNDO ABATA DEUNA

Naparroan jaio zan 1,020 urte inguruan. Gazte zalarik Iratxe'ko monastegian lekaide sartu zan, eta bertako Abata Nagusia izan zan 40 urtetan.

Bere pozik andiena gaisoai laguntzea izaten zan, eta gosetuai jaten emotea. Naparroa'ko Erregeen aolkulari edo kontseillari izan zan.

Santu-ospe andikoa il zan 1,090 urtean.

Beremundo Deunaren azurrak dituen kutxatilla, aldizka, bost urtetik bost urtera, Billatuerta'tik Arellano'ra, eta alderantziz, aldatzen dabe, Naparroa'ko erri bi oneik, bada, bakotxak beretzak eskatzen dabe santu onen jaioterri izatea.

Epailak 15

FITERO'KO RAIMUNDO ABATA DEUNA

Santu au Tarazona'n jaio zan, Euskalerriko mugan.

Leenengoz kanonigo izan zan, baiña laster Zister ordeneko jantzia artu eban, «Scala Dei» izeneko lekaidetxean, Frantzia'ko Tarbes errian.

Tarazona'ko eleiz-barrutira itzulita Fitero'ko lekaidetxea sortu eban, Nafarroa'ko ego-aldean, 1.152 urtean.

Eugenio Irugarren Aita Santuak, deituta, Erroma'ra joan-etorria egin eban bere Ordenako Billera Nagusian esku-artzeko.

1.158 urtean Kalatraba izeneko militar ordena berak sortu eban, Zister ordeneko legepean. Andik bost urte barru Toledo'ko erritxo baten il zan, eta orregatik orain bere azurrak Toledo'ko katedralen zaintzen dira.

GOIKOETXEA'tar IÑAKI

GORGONIO M. ERREENTERIA, OLERKARI (1868-1940)

GIZONA

Elantxobe'k ez ditu gizon ospetsu gitxi emon; ez bakarrik itxastar, baita euskal idazle ta olerkari lez be. Ori argitu ta egiztatzeko, erdi-aazturik daukagun Andima Ibiñagabeitia, Jose Intxasagarri ta besteak gogora ekarte bañño. Emengoxea, elantxobetarra genduan Gorgonio be, euskal idazle ta olerkari, barriro esanik.

Itxas-ertz txairo onetan jaio zan 1868'ko iraillaren bederatzian. Berton osotu zituan lenengo ikas-teak; gero, Bizkai itxas-aldeko beste gazte askoren antzera, nautika ikasi ta urgain zear ameslari ta bizkor ekin eutson bazterrak ikusi ta esitzen. Eder jakon kresal-sunda ta Marina Merkante'n izena emonik, or nun dabilkigun zintzo ta langille. Ogei urte ta geiago erre zituan Filipinas'en, ugarte artako Marina Merkante'ko buru zala.

Urrin bizi zan berak maite eban erritik. Azkue jaunak zuzentzen eban «Euskalzale» aldizkariaren orri dator, urriñeko izaro aretatik bialdutako «Urruntasuna» deritxon olerkia. Onela diño bertan:

*«Urrun daukat nik Euskalerrria
joan dan aspaldi onetan;
asko ba'neban lenago maite,
geiago dot gaur maitetan».*

Egia da, biotzak ez dau parkatzen. Gaiztotu ez danak beintzat, itxas-orratzak iparrera lez, eki-loreak eguzkira lez, ala berean biotzak sorterrirantz joten. Eta Gorgonio, urte-mordoa erbesteetan egin ostean, bere errira biurtu zan; gazte ta amesez beterik oindiño. Bere erriaren alde zerbait egiteko gogo ta asmoz.

Egiako abertzalea genduan. Adeitsu, samur eta on-bera agertu zan nun-nai ta beti. Eta, ba-dakizu, olako gizasemeak, ez euki dudarik, goratu egin oi ditu erriak. Alkate izentatu eban Elantxobe'k eta, alkate zala, beste lan bikain askoren artean erriko iltegi, kanposantu barria zuzendu eban; onen sarreran, berak atxurdiñean josita esan gogoangari au ipiñiaz: «Otoi bat eta gero arte».

Gizon jakintsu, zuur eta experientzi aundikoa zanez, 1916-1920 bitartean, Bizkai Buru Batzarreko nagusi izan zan; baita 1917'tik 1920'ra Probintziko Aldun edo Diputadu be. Kargu onegaz egoala, gogotsu lan egin eban Bizkaiko langillariaren alde, euron gizarte-auzi, buru-auste ta goraberak zuzendu ta artez eroaten asko be asko alegindurik. Aozko izlari lez, erririk erri ibilli zan J. Arrospide ta K. Enbeita'gaz. Orduko euskal-azi ereille jator eta zintzoenak, onexek irurok izan ziran ogei urte ta geiagoan. Beti euskeraz, erriak ekian izkuntza ugari oparoan.

Azken gerratean Frantzia'ra joan igeska, eta Baiona'n il zan bereak inguruan zitualarik, 1940'ko urtarrillaren ogetazazpian. Aren gorpuzkondoak, barriz, Elantxobe'ra ekarri ebezan 1959'garren urtean.

OLERKARIA

Ainbat lan egin eban Gorgonio'k euskal barrutian, prosaz eta bertsoz. Bilbo'n Azkue jaunak ekarren «Euskalzale»-n eta gero «Ibaizabal»-en asi zan beargiñen, 1897'an ain zuzen. Lenengo lanean Azkue eta «Euskalzale» goratuz pozik agertzen zan, eta Azkue'k bere aldetik onan: «Umeai egiten iakezan palaguak eta agurai egiñiko ariguriak edo osekioak legez artu daroaguz egiten iakuzan ondo-esanak: ezpanetan barrea, umeak legez, ta biotzean esker ona, aguren antzera, doguzala. Ez aaztu, urrunetako euskaldunak, zuen Ama zaar onezaz».

Gorgonio'k naikoa idatzi eban, lenengo aitatu ditugun Azkue'k zuzendutako aldizkari bietan eta gero, Euzkadi'n aurkitzen zala Bilbo'ko «Euzkadi»-n eta «Gudari»-n eta Zornotza'ko «Ekin»-en; lenengo «Errebido» izenordea erabili euskun eta azkenez «Perularra». Gai asko astindu ebazan: Jainkoa, maitasuna, baserria, sutondoa, aretxa, gure izkuntza, Gernika'ko Zugatzza, eta atar.

Min emoten dautso Gernika'ko Zugatzak; zergaitik baiña? Gizaldiak zear kemena gitxitu jakola-ko. Edu onetan diartu kantari:

*«Sorterritik urrunean
biotza daukat naibagez
eta gomuta nai ta ez
beti zugandik urrean,
egunez eta gabean
nire begiak negarrez
zu ikusi nai zaituez
lenago ziñan antzean».*

Gure maisua, eguzki dizditsua il zanean, biotza oso zauritu jakola dirudi. Ona emen berrogetamar bertsodun olerki gartsuaren lenengo amasei lerroko aapaldia, Arana Goiri'ri eskiñia.

*«Il ziñan, baiña zure gomuta
illezkorra da neure goguan.
Aintzaz jantzirik agertuten yat
beste gomutan danen buruan.
Baita sarritan, atsege orduan,
agertuten yat zeure irudija
ta erakusten daust, irri-barreka,
azke izateko dodan bidia.*

*Aberriaren ziñopa aundi
eta gaizkalle dua neure biotza
zeuretzat da gaur neure otoia.
Zor dautzuk bada ene zoruna
zoritxarreko Aberri onetan,
ezautzen ba'dot Ama kutuna
zeugaitik da, ba, bene-benetan».*

Ez dakit Perularra medigoizale edo-ta erromerizale zanik; baiña au ba-dakit, aren lumeak mendigoizaleak eta erromerizaleak goratu zituna. Leenago, edo oindiño antxina ez dala, gaurko «inpernuko auspoaren» ordez, panderoa lagun koplata atsegiñak kantatzen ziran dantza bitartean. Onako bat beñik-bein agiri da Zornotza'n azaltzen zan «Ekin» asterokoan. Amabi lauko daikaz, Perularra'k gatz eta piñerrez gaiñezka egiñak. Ona orretatik bost saltoka artuta.

*«Oñetako indarra
buruan bazendu,
pozik eingo nintzake
ni zugaz eskondu.*

*Egualdi onak legez
egualdi zatarra:
barriak dau urrian
atzetik negarra.*

*Ez egizu barrerik
iñoren gatxian,
bestek egin ez daizun
zeuk daukezunian.*

*Gordeten ez diranak
bear dan orduan,
negar egin oi dabe
sarri beranduan.*

*Eskontzeko amesak
oi dozak gogoan,
eta sasia daukak
garalle soloan».*

Molde onetako koplai trikitixak deritxegu. Lengo gizaldietan —baita gaur be— onako asko abestu izan da gure artean. Moltso batzuk batu ta argitaratzea lan polit bikaiña izango litzateke.

Edozein eratako bertsotan jator agertzen jaku Gorgonio. Ez, ez dogu edozelango koblakari. «Ez zirtzilla iñolaz ere —idazti neban nik ari buruz neure «Euskal Literatura»-n-, barne-gunez eta gaiñ-azalez bikainki onduta bait daude biribildu zizkigun guztiak. Bere alaba Jule bizkorra ari da aspaldidanik aren lan osoakin liburu eder bat gertu naiean». Neuk daukat ori, nok diruz lagundu zain.

AITA ONAINDIA

Euskalerritik Mundura Begira MARRUEKOS

Marruekos edo MAROK lur ezaguna da euskotarrantzako. Majiñabat euskotar gaztek galdu bait dau bizia lurralde artako mendi latzetan.

Ez alper gaiztoan! Espiñi'ko aundiki eta militarren arrokaria asetzeko bakarrik. A zeñen ederki abestu eban Paul Yantzi bertsolari naparrak 1921'ean Marok'eko gudaren nazkagarrikeria.

Gero, eun urteren luzeroan ainbeste odol. —eta ainbeste amaen begiatako negar kosta zan lur ura dana—, moroei itzuli zien, —ezeren truk—, Franko diktadoreak. Errepublikak egin ba'leu ori, je!, ez eben zarata txikia aterako Espaiñi'ko militar guztiek, eta Franko'k berak!

Zeuta eta Melilla gelditu ziran Espaiñi'rentzat, sortu-bearrak diran amaika asarre-bideren iturri. Baiña ez noa gaur bi uri oitaz mintzatzeraz. Egingo dot ori beste egun batean.

Marrok, lur txiroa da. Arkaitza, ta arria, ta ondarrezko basamortua geyena, bere 306.000 kilome-

tro laukoietan. Basoren batzuk, eta nekazaritzako alor batzuek ere badauz, baiña gutxi, bertan bizi diran 14 milloi gizakumeak alikatu edo mantentzeko.

Dauan aberastasun urria erabiltzeko ere, ez dau Laterri edo Estadu batek bearrezkoa dauan gaitasunik. Naiz itxuraz, —legebatzar, auteskunde, eta jaurlaritzaz ta guzti—, munduari demokrazi-aurpegia erakutsi, diktadura utsa da Marok'eko agintaritzaz. Diktadorea berriz, Hassan II da gaur. Atzo, Hassan'en aita, Mohamet V'a izan zan; eta eranegun Frantzia.

Frantzi aipatu dogun ezker, esan daigun ez ebalaz Frantzi'k ezer aundirik egin Marok gaurko bizieraz erakartzeko, Zerbait..., bai. Baiña oso gutxi. Espaiñi'k berriz, ezer zer.

Matxinada gogorak izan dira Marok'eko urietan. Matxinada, noiznaiko gauza izaten da laterri maometarretan, baiño Marok'eko onek arrazoi jakin bat izan dau: gosea.

Goseak bizi da Marok'eko jendea. Janarien salneurri edo prezioa igo dau jaurlaritzak. Igoketa orren aurka jaiki dira jendeak.

Gogorra izan da erantzuna: tiroka ildako jendea, espetxeak beteak, eta orain lepamozte, urkatze, ta fusillaketak etorri litezke. Orrelakoa izan oi da maometarren artean epaikera, justizia.

Orrek ordea, goserik ez dau konponduko. Eta goseak osteraz, matxinada eta iraultza ekarriko dauz. Aolkulari edo kontseillari makurra bait de gosea.

Emen, Euzkadi'n ere, badogu gosea etortzearen arriskua. Lanik gabe gelditzen ari yakuz olaetako langilleak. Eta lanik-ezak gosea dakar. Goserik langilleak, goserik langilleen emazte eta seme-alabak.

Pentsa zer gerta daitekean gure urietako kaleak millaka eta millaka gosez amorratutako jendez betetzen diranean. Gorriak ikusi bearrak gara arazo larri au garaiz eta era egokian konpontzen ez ba'dogu.

LATIEGI'tar BIXENTE

PLAZAOLA

LEITZAKO ALDIZKARIA

6. ZENBAKIA
URTARRILIA



GOMUTAKIA

1984 INAUTERIK

Naparroa'ko Leitza'tarrak maite gaitue.
Gure egutegia pozez irakurten dabe eta PLAZAOLA izeneko aldizkaria be bialtzen dauskue.

Aldizkari eder au, oker ez ba'nago erri alai eta pozgarri aretako udalak argitaratzen dau; euskera utsean.

Eskarrik asko Leitza'tarroil!
EUSKARAZALEAK (Bilbo'n)

UMETAKOAK GOGORATZEN

Nire lenengo urteetan guztiz konturatzen ez banintzen be, mixterio antzeko zeozer, ezkutuki antzeko zerbait ba zan gurean: ez aitaita, ezta osaba, ez senide zan gizon baten argazki bat; eta baita aldarako santu ez zan igeltzuzko irudi bat be. Argazkiak iru margodun marko biribilla eukan eta igeltzuzko irudia idaz-maian egoan. Betidanik, argazkiko gizona ta irudi zurikoa, «Sabin» zala esaten gundun.

Abesti batzukaitik eta, galazota egozala eta «kartzelara» eroaten ebela be entzuten gendun. Gure aita espetxean egondakoa zala be genkian eta ez gauza txarragaitik.

A! Eta gurean, inguruan jazoten ez zana: gurean, euskeraz egiten zan beti; gu euskaldunak giñan!...

Gaiñerakoz, orduko nire «politikea» auxe zan: udala ta aldundia («diputasiñoa») onak; gobernu txarra... Nundik atara ete neban ori? Berezkuntzarik errezena lez, gauzak «on» eta «txar» biurtzetik?... «Ama, ori ona ala txarra da?... Erregeak gobernuaz loturarik eukanik ala ez be ez ne-

kian eta errege zalea nintzan: erregea maite neban; obeto, erregeak maite nebazan... Naizta desilusiñoa artu koroi ta mantu ederre ez zirala jantziten jakin nebanean. Orregaitik, erregea jausi zanean, erregek atzerrira alde egin ebanean, biotza estutu jatan. Eta Frantziara joan zala entzutean, esan be egin neban itxaropenez: «Ja bertako errege egiten daben!»

Pixkat lentxoago izango zan, ikastetxean umeek alkarri itaunka asi ziranekoa: «Zu zer zara? (Tú qué eres)» Eta batek, «ni katlistea»; besteak «ni monarkikea» tab. erantzun. Nire txandea eldu zanean, «nik ez dakit» erantzun neutsen, ezjakintasunik aundi ta apalenaz. Gu baiño iru bat urte nausiago zan neskato batek, urrintxoagotik dana entzunda, «zu, bizkaitarra zara» esan eustan: «tu eres bizkaitarra». Nire poza orduan! Monarkika, errepublikana edo karlista izatea ezer ez zan niretzat: ostera «bizkaitarra» izateak zorionez bete nindun. Aintziñako jazoera au, iñoz iñusente-iñusente kontatu izan dotanean, bizkaitar ez diranai barrerretxoa igarri izan dautset. Baiña

niretzat, neskato arek «bizkaitarra» ren orde «euskalduna» edo esan izan baleust, poz bardiña nabarituko neban. Napar, gipuzkoar edo arabarra nintzala esan izan baleust be, antzerako poza emongo eustan. Azkeneko iru orreita-koren bat izateak, arritu bai, egingo nindun: «Ene bal Naparra ni? edo nire kautan esanik. Orrenbeste ba nekian eta; baiña besterik ez.

Etxean laster erakutsi eusten «bizkaitarra» barik, «abertzalea» nintzala esaten; edo «nacionalista» erderaz egitean.

Orduantxe izan zan zazpi urteko illunaldi txikiaren ondorengo itxarkundia: gora Euzkadi deadar eta abestiz batzokiak zabaldu ziran; ezkutuan egoan ikurriña agertu; txistu, dantzari ta bertso-lariz gure plazak alaitu; ikastolak barriro zabaldu ta ugaritu.

Eta guzti au, 1865 eko Urtarrilaren 26'an Abando'n jaiio eta 1903'ko Azillaren 25'ean, Suka-rieta'n il zan Arana-Goiri'tar Sabinen bultzadari esker! «Euzkadi euskotarren aberria da» esan ebanari zor dautsagu!

Bere jaiotz-urteurrenean,
MAITENA'k

AMA NEKETSUA

*Untzez josita
dago Jainkoa
gurutze baten gogor lotuta;
gurutza-oñean
Ama gaxoa
neke-semiñak gogor artuta.*

*Begiak malkoz,
biotza miñez
baltzez jantzita dago Maria;
gurutz-ogean
odol-tartean
beruntz begira bere Semia.*

*Zazpi espata
biotz-muñean
itxas-antzeko da bere miña;*

*Nork al'dezake
bere biotzak
izango eban neke-samiña?*

*Ama gaxoa:
Ez Zuk ixuri*

*negar-malkorik arren lurrera;
begira adikor
gurutzeari
eta Gurutzan dan Semeari.*

*Begira niri
begi maitetsuz;
eta luzatu zure eskua;
piztu egizu
otzez dagoan
nire biotzan maitasun-sua.*

GOIRIA

MARRASKILLOA-KARAKOLA

*Marraskilloa doa
batetik bestera
ta bidean kotxeak
arinka aurrera.*

*Bide-zabal orretik,
or doa mutilla
eta berak eskuan
daroa makilla.*

*Joten dau makillagaz,
zapaldu ez deien*

*eta asarre asten aa
garratzak esaten.*

*Barriz bidera joan
ta dakus lagunak,
kotxeek zapaldurik,
egozala illak.*

*Mutil au bada, gero,
—diño— egiz ona!
Makillaz salbatu nau!
Nire zoriona!*

*Sarri askotan Jaunak
egiten dausku min,
arriskuan gauzala,
maitasun onakin.*

*Amak, be, su ondotik
jaurtzen giñun urrin,
guk, arratza batean,
naiz ta, negar egin.*

ARGINTXONA

SOÑEKO BARRIAK

*Idatz ta mintz ainbat modisto, estu ta larri
gure amama onen soñeko au ba dala
zaarregi, antxiñakoegi ta petrala,
ta obe ez ete dan moda barrira jarri.*

*Ara emen jostorratz, ari, artazi barri.
Dana da urduria, ametsen ekiñala,
barritu guran gorantz, gona ta amantala.
Batez be buru-zapia: dana aldagarri.*

*Peineta zorrotz, apain, andaluz erako;
paparrak obeto libre, utikan gorantzak,
gona luze ta amantal oztopo dantzarako.*

*Jendez bete, artega, zelai ta enparantzak,
gure amama jantzi barriz noiz agertuko.
Ete da? — atabaletan ttuttunka zalantzak.*

A. BIDAGUREN A.

ETB eta TVE

Urola ibai-aldean (Azpeitia, Azkoitia, Zestoa...) 64 erantzun jaso dodaz, eta emen dozuz erantzun-
11 eta 12 urteko mutil-neskatoen artean itaun-erantzunak.
tzun batzuk egin dodaz, Euskal Telebista buruz.

* * *

Lenengo itauna:

ZER IKUSTEN DOZU GEIAGO, EUSKAL TELEBISTA ALA ESPAÑA'koa?

27 Euskal Telebista geiago ikusten dot erderazkoa baiño.

31 Biak bardintsu ikusten dodaz.

4 Erdal telebisiñoa bakarrik ikusten dot.

(Bazter guztietara ez da oraindik eltzen Euskal Telebista).

Bigarren itauna:

EUSKAL TELEBISTAN ZER JATZU GEIEN ATSEGIN?

(Gaiak maillaka ipiñi: lenengo, bigarren...)

| | | | |
|-----------|--------------------------|----|---|
| Lenengo | TELEFILMAK | 60 | (Batez ere «Dallas» eta «Bedeinka nazazu, Jauna») |
| Bigarren | MUSIKALAK | 37 | |
| Irugarren | KIROLEZ KIROL | 30 | |
| Laugarren | GAZTETANDIK | 23 | |
| Boskarren | MARRAZKI BIZIDUNAK | 17 | |
| Seigarren | DOKUMENTALAK | 9 | (Batez ere «Everest») |

Irugarren itauna:

EUSKAL TELEBISTAN ZER JATZU GITXIEN ATSEGIN?

(Gaiak maillaka ipiñi...)

| | | | |
|-----------|--------------------------------|----|---------------------------------|
| Lenengo | BERBETAN | 17 | (11-12 urtekoak dirala ez aztu) |
| Bigarren | MAHAI INGURUA | 17 | |
| Irugarren | TELEGUNKARIA (ALBISTEAK) | 10 | |
| Laugarren | MUSIKALAK | 9 | |
| Boskarren | MARRAZKI BIZIDUNAK | 7 | |
| Seigarren | ZOPA HAUNDI | 6 | |

Laugarren itauna:

ZENBAT ORDU EMOTEN DOZUZ EGUNERO TELEBISTAREN AURREAN?

ASTAGUNETAN

| | | |
|-------------------|--------|----------|
| 3 edo 4 ordu | 64'tik | 8 gaztek |
| 2 edo 3 ordu | » | 16 » |
| 1 edo 2 ordu | » | 3 » |
| 1 ordu | » | 3 » |
| Gitxi ikusten dot | » | 4 » |

OPOR EGUNETAN

| | | |
|--------------|--------|----------|
| Egun osoa | 64'tik | 1 gaztek |
| 4 edo 5 ordu | » | 23 » |
| 3 edo 4 ordu | » | 13 » |
| 2 edo 3 ordu | » | 18 » |
| 1 edo 2 ordu | » | 9 » |

«Ez dot telebistarik ikusten» ez dau erantzuten inork ere.

OARPEN BATZUK.

KIROLEZ KIROL geiago atsegin jake mutillai, neskai baiño.

MUSIKALA bai bardintsu.

TELEFILMAK zerbait geiago neskai, mutillai baiño.

MARRAZKI BIZIDUNAK, neskai geiago mutillai baiño, batzuei ezer ez.

«EVEREST» DOKUMENTALA mutillai geiago neskai baiño.

Neskak ordu geiago emoten dabez telebistaren aurrean, mutillak baiño, baiña alde andi barik.

«Barriak» jakitea, «Telegunkaria» ez da interesgarri 11-12 urteko gaztetxoentzat.

GOIKOETXEA'tar IÑAKI

ESKU-IDAZKIAK

XXII GORAPEN-ABESTIA

²⁹ Bedeinkatua Zeu, errukiaren eta graziaren
Jainko ori,
zure errukiagaitik, zure izate aberatsagaitik,
³⁰ zure egintza guztietan dozuzan ontasun uga-
riakaitik!
Poztu egizu zure doaiaz
zure erreñuko laguntza.

³¹ Garbitu nagizu zure zuzentasunean;
izan be, zeure ontasunean dot ustea,
zeure biozperatasunean dot ustea;
³² zeure parkamenez askatu nenduzun nire miñe-
tatik,
baita adoretu be nire oiñazean,
zeure errukietan sendotzen naz-ta.

XXIII GORAPEN-ABESTIA

³³ Bedeinkatua izan zaitezala, ene Jauna,
gauzok egin dozuzalako
eta zure morroi otoizle onen agoan
³⁴ nire agoak ozta-ozta dirautsun au jarri zen-
dualako:
Zuk bai egin dozula nigaitik!
³⁵ [...] indarra izan dot
³⁶ eta Zuk zure eskuetan [...].

XII sorta

¹ Aundiagotu egizu nire izate guztia [...]
² emoidazu zure etxeko santu danaren ziurtasu-
na.
Baretasuna nire txabolan, salbamenal!
³ Zeure izena goratu dot bildur dautsuenen ar-
tean;
⁴ kantuz eta gorapenez belaunikotuko naz
gizaldiz-gizaldi eten bagarik eskaturik,
⁵ eguzki-sortzaldetik sartzalderaiño, egun oro,
erraldoi argitsuaren igaroteari jarraiturik.
Gaba datorrenean eta argia atzamatzen danean
eta arrezkero illunpeak nagusi izaten asten diranean
—gau-aldia—, otoitzean bakarkatzen naz ni
goiza eldu arte
⁷ eta illunpeak argitan ezereztu
eta euren bizitokira aldendu arte.
Guztientzat eten bagarik
urteten da gaba, sartzen da eguna.
⁸ Aldiaren izarrak
aldiak eta mugatutako epeak negurtzen dabez.
⁹ Arein ezaugarrien [Zeru-gerriaren] negurria
arein eragin guztiaz
Jaungoikoak berak emon dautsen eraz igaroten dira.
Danaren eta izango danaren autorpena egiten dabe.

¹⁰ Ez dabe azkenik. [Jaungoikoaren] esate ori ba-
garik
ez dago ezer be.
Jaungoikoak, dana dakian ezkerok,
¹¹ ezarri eban ori.
Iñor be ez da besterik Aren ondoan.
Nik, ikasle nazan onek, ezagutzen zaitut, ene Jauna,
¹² nigan Zeuk jarri zenduan espirituaren bitartez.
Arretaz entzun nebazan zure ezkutu miragarriak.
Espiritu Santuaren eragiñez,
¹³ zeure jakituriaren misterioaren ezaugerea sa-
kondu zenduan nigan.
Zeure aal-izatearen amaitu-eziñak
¹⁴ agertu dau ori, erruki ugariaren
eta zaletasun garbitzaillearen erara.
¹⁵ Zure aintzaren dirdira argi amaibagea izango
da.
¹⁶ Ez [da izango] geiago dongakeriarik, ez ma-
rrokeriarik
¹⁷ [...] triskantzarik. Izan be, arrezkero ez da
izango [...]
¹⁸ ez ondamendirik. Izan be, zeure aurrean nire
oiñazea.
¹⁹ Iñor be ez da guztiz zuzena zure aurrean.
²⁰ Gizon ikasia zure misterio guztietan
bereala erantzuteko [...]
²¹ zure zorrotzaldian;
zeure ontasuna agertzeko, [...]
²² ezagutuko zaitue,
aldia eltzean, zeure aintzan poztuko dira [...]
[...] erara
eta zeure adimenaren arauz
²³ urreratuko zakiez.
Zeure aal-izatearen erara otseinduko zaitue,
zeure banantzeen arauz,

²⁴ zure berbak inoiz be ausi bagarik.
Niri buruz, [zetarako ardurarik?],
edozela be autsa baiño ez naz-tal,
²⁵ gaiztakeri-iturri, ezeuki utsa,
uraz oraatutako lokatz-pilloa,
²⁶ illunpeen gelea.

Biurtu daitela autsetara buztiñezko izakia.
Bai; umea eldu daitenean, autsetara biurtuko da;
²⁷ autsetatik izan zan urtena.

Zer erantzungo dau autsak?,
zelan ulertu aal izango dau?,
²⁸ zelan egin aal izango dau gogor
bera zigortzen dauanaren aurrean?

²⁹ Igo aal izango ete-da goi betikoaren aurrean?,
aintzaren iturri asierabagera,
edozein ezaguerako iturburura berberara?

³⁰ Ezta espirituaren erraldoiak be
ezin azaldu daikee zure aintza.

³¹ Inñok ezin daikeo erantzunik emon zure zigo-
rrari,

Zu zuzena zara-ta. Inñor be ez Zu lakorik!
Izan be, zer da nai ta nai ez autsetara biurtu bear
dana?

³² Isilik geratu naz, zer esan bear dot orretzaz?
Ozta-ozta egin daiket berba ia ezer be ez dakidanaz.

³³ Buztiñezko izakia, zelan izan daiteke zuzena?

Eta zer erantzungo dot irakasten ez ba'nozu?,
³⁴ zer esango dot, leenen neure biotzari agertzen
ez ba'dautsazu?

Zelan ibili naiteke ni bidean zuzen.

nire oiñak Zeuk sendotzen ez ba'dozuz?,

³⁵ zelan egon daitekaz sendo nire oiñak,
Zeuk indartzen ez ba'dozuz?,

³⁶ zelan jagi naiteke, Zeuk [jasoten ez ba'nozu?].

GIZAKERA

Nagusiren baten aurrean zagozanean ez zaite jesarri bera baiño lenago. Bera jagiten ba'da, zu be jagi.

Toki estu baten bi izketan dagozanean, ez zaite igaro bien erditik, alde batetik baiño. Tokirik ezpa'lego, baimena eskatu.

Kale-zear ba'zoaz, zu baiño nagusiagoa danari itxi egiozu eskuma; alan be kale-ertzetatik ba'zoaze, itxi barrukoa berari, naizta eskar-aldia izan.

Kale batetik bestera igarota beste kale-ertzea artzen ba'dozue, zuk aren atzetik igarota tokia aldatu ta barru-aldia emon.

Doazenak iru ba'dira, gitxiago diran biek, erdian eroan begie nagusiagoa.

Karlisten Bigarren Gudea

AMOREBIETAKO ITUNBENA

Bizkaiko Guda Adundegiak Gudarien egiteak goratu ta gero, duintasunez ta zintzoro berba egin eban: egin yakozan agindu-eskeintzak, eroandako nekaldi, larritasun ta arriskuak, eta bere bear-kun eginkizun garratzena bete eban, erriari egin esanaz. Bizkaitar gudari taldeak euren buruzagien abotsa entzunda, izkulluak itxi ta emon ebezan, eta esanaren jarribide izan ziran etxetara joaten nai guda zelatetara etortean. Durango, Arratia ta Mungia'ko gudari borondatezkoak, Itunbena izenpetu zanetik bi edo iru egun geroago Villaro, Zeanuri ta Orozko'n agertu ziran, euren menpean eukezan 52 giputz Oñate'n atxillotuak, guda-buru Letona'ri eskuratu eutsoezan. Bilboko batallioia taldeka auzketu zan, batzuk Amorebietan, beste erri askotan.

Zaldun-talde ofizialak On Felix Noriega'gaz ta beste borondatezko gudariekin Amorebieta'n auzketu zirean. Lekeitio'n egon ziran Markiña-koak Ytunbena egin zanean, erri onetan euren izkilluak emon, eskuratu ebezan, gero ondoren atzerrirantz ontziratuaz Aldundegiak emoniko ontzietan. Enkart-erri batallioia orretaz, jaso-rikorik ez jakinda, Urkiola'ko san Antonio'n eldu ziran, andik Orozko'ra igaroteko asmoz.

Gudaldi onen azkenean bertan eskuartu eben agintari ta oldezko gudarien zentzutasuna gogoratu ta goratu egin bear dogu. Nok ez daki anai-gudako asikerak ze bildurgarri ta ikaragarriak dirala? Alan eta be, Bizkaiko Karlatar Bigarren gudea asi zanean ta Karlitatek ia Bizkai oso eskuratuaz, gure arerioak ez eben artu diru-nekerik ezta erbesteratze, neke-eraso, irri-destaiñik be. Euren liberal-baltzen izparringi «La Epoca'k» idazten

eban: «Euskal erriko talde gudari Karlatarren gizabide zentzuduna txalotu ta goraldtu bear dogu, gure eritxiz ango biztanle oitura onak onagaitik. Osteko atzalburu baten esan dogu guda Aldundegikide batek ze alegiñez ziar-duan gudea arriarentzat ez zitean astun nekegarri larregirik, ez ta gudea asita gero be ez zala elduten eskuarte, laguntza, sorospide abindurikorik. Beraz, mugimendua zuzenduten ebenak dirua billau ta eukiteko alegindu bear ziran lenengoetarik eratu zan gudarozte andi ta ezustekoren ardura eukiteko.

Benetan 4.000 gizon armadunen eralgi-bearra itzela izango zan: guda a, orraitioño gitxi kosta zala esan geinke, jakina, besteen aldera. 1874'ko Irailla'ren 14'n, guda Aldundegi'ko On Juan E. de Orue Batzar Iba-Jauntza'ri auzketu eutson guda denbora eralgi-gastu egindako auzi-agirietan 67.929 erreal ta 25 marauri baka-rrik ikusten doguz. Zerbaki onetan, jakiña, ez-tagoz guda Aldundegi'ko jaunak ta ta beste norbaitzuk On Karlos'eri emon eutsoezan ditu moltxoak gudea gertatu egian, ezta erriari kendu edo kosta izan jakona ainbeste gudarien ornidura ta bizitzarako.

Orain, ez ete jaku etorriko ondo jakitea, edestiaren zeastasun ta argitasun bidez, Bergara'ko Itunbenagaz Amorebieta'koak antzik daukon? Bai, ziur, antzen bat, biek diralako aginte-batzar, itunbena. Ostantzean, naikoa desbardinañak dira, itunbena egiteko Arrazoiak desbardinañak ziran. Nergara'ko gudariak oituradunak, guda-keta askotan ibillikoak; Amorebietakoak, baserritar, erritar guda jakintza bakoak. Areik guda-buru ofizial agintari trebe

egokiak eukiezan: oneik euren indarrak erabili ta zuzenduteko, gitxi. Bergarakoak, diru, laguntza, sorospide, gudu-ornidura, gura aina. Amorebietakoak, ez. Bergara'ko Itunbenean egilleak euren onura ta irabazkiak begi-aurrean eukiezan: Amorebieta'ko Itunbenean ez egoan olangorik. Askenez. Bergara'n egin zan itunbena egite gogozko, oldezko, baitazko eta buru jabez aukeratu izan zan: Amorebietan egin zana naita-naiezkoa, bear-bearrezkoa, ezinbestekoa. Alan da gustiz be, Bergara'koa ontzat artu eben; Amorebieta'koa, ez.

Amorebieta'ko Itunbenak ba-eukazan akats, utsegiteak. Gudalburu Serrano lege-eskubideen jabe egin zan. Baiña ezin lei ukatu alde bietako gizon erkideak gogo guttiz zintzoz jokatu ebela, gogoratu, gudea amaituteak jarratzeak baiña onura askoz geiago ekarrela ondo ikusi ta jakiñez.

Eta argibidez, Bizkaia'n Itunben ori ondo artu eben, eta izkilla-lluak, guda ornidurak alboraturik, etxeratu ziran bakean biziteko. Liberalen albistariak Amorebietako Itunbena'ri buruz txarto berba egiten, eta Bilbo'ko Baltzak aren aurka gogor agertu ziran. Zelan ez, eurak izanda Guda Aldundegi'aren arerio amorrutuak? Euren egoera kontrakoaz «bake-antolabidee au ez ezala euren, joerako erakusten eben. Karlatar andiek be aitzurik ez bear ebela jarraitu liberalen erabiderik, orretan bat egin eben, Itubena erasoten oneikaz batera ziarduela, jakin arren onen bidez nai gudaren ikaragarri ondorenak, odol-ixurtze, eriotz, ondasun ondamera ta beste kontezin kalte aldenduten zireala.

LETONA'k

EUSKAL IKUSTIRRATIA (Ez "Telebista")

"Bizkaitarrak azpiratuta gagoz... Bizkai'ko euskerea zapaldu egin dabe".

GALLASTEGI'tar KAULDI

Geien itz edo berba egiten dan euskera BIZKAIERA da... EUNETIK 45 inguru dira BIZKAIERAZ egiten daben euskaldunak eta, bestetik, Eusko Jaurlaritza'ren aurrekonturako diru geien emoten dabenak bizkaitarrak dira.

Alan ba, Eusko Jaurlaritza'ren aginpean dagoan Euskal Ikustirratia'ren eralgi-bearraren zati on bat Bizkai'ko erriak ordaintzen dau.

* * *

Eta, ordez, zer emoten dautso Euskal Ikustirratia'k Bizkai'ko erriari? Naigabeak, geien baten.

Ba, zoritxarrez bizkaitarrak ondo dakigunez, Euskal Ikustirratia'k Bizkai'ko euskerea, BIZKAIERIA, *baztatu* egin dau... Euskal Ikustirratia'k ez dau erabilten euskaldunak geien erabilten daben euskerea!

Eta arrigarriena da, Euskal Ikustirratia bizkaitarren diruagaz baliatzen dala *BIZKAIERIA baztartzeko*.

Euskal Ikustirratia'n bizkaitarrak be ei dagoz... *BIZKAIERIA baztartzan* daben bizkaitarrak Judas batzuk dira, eta oba Bizkaia'n jaio ez ba litzaz!

* * *

Ostera, benetako bizkaitarrak oso minduta gagoz Euskal Ikustirratia'ren kaltegarritzko jokabideagaz *BIZKAIERAREN* buruz.

Orregaitik, ez da arritzekoa Euskal Ikustirratia bizkaitar gitxik ikustea... Gañera, bizkaitarrak zelan ikusiko dabe Euskal Ikustirratia, mezu-bide onek erabilten dauan izkerea ez da'dabe ulertzen?

Baita be, bizkaitarrak ulertzen ez doguna da, Euskal Ikustirratia'n *BIZKAIERIA* olan baztatu ta zapalduta ikusirik..., zergaitik Bizkai'ko Euskal Erakundeak ez dabe salatzen Euskal Ikustirratia'ren jokareta, eta ez dira alegintzen eta arduratzen erabagiak artzeko Eusko Jaurlaritza'k Euskal Ikustirratia beartu dagian *BIZKAIERIA dagokion neurrian* erabilteko?

* * *

Nok esango eban euskaldun batzuk beste euskaldun batzuen zapatzailleak izango zirala? *BIZKAIERIA* baztatu ta zapalduta, zelan lortu leiteke euskararen batasuna?

Burutik eginda egon bear da *BIZKAIERIA* galtzen bada, Bizkaia'n beste euskera bat egingo dala pentsatzeko. Erderea bakarrik egingo da!


BILBAO'tar JON E'k

EUSKERAZALEAK

ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia